



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

2021EKO EKAINAREN 23AN UDALBATZA PLENOAK EGINDAKO EZ OHIKO BILKURAKO AKTA

29. BILKURA

Azkoitia Hiri Prestu eta Leialeko udaletxean, bi mila eta hogeita bateko ekainaren 23an, arratsaldeko zazpitan elkartu da Udalbatza Osoa, lehenengo deialdian. Ez ohiko bilkura honetarako deialdia behar bezala egin da eta eguneko aztergai zerrendan jarri diren gaiak aztertu eta ebatzi dira.

Javier Zubizarreta Zubizarreta Alkate jauna (EAJ-PNV) izan da batzarburua, honako zinegotziak bertaratu direlarik:

Ana Azkoitia Urteaga A. (EAJ-PNV).
Imanol Arrizabalaga Larrañaga J. (EAJ-PNV).
Marijose Arregi Etxeberria A. (EAJ-PNV).
Sonia Vazquez Tejerina A. (EAJ-PNV).
Angel Luis Martin Rodriguez J. (EAJ-PNV).
Mertxe Zubillaga Albizu A. (EAJ-PNV).
Juan Bautista Mendizabal Juaristi J. (EAJ-PNV).
Iraitz Otaño Mujika J. (EH BILDU).
Laida Beristain Zubizarreta A. (EH BILDU).
Ainara Goenaga Andueza A. (EH BILDU).
Mikel Zengotita Alberdi J. (EH BILDU).
Angel M^a Etxeberria Iburguren J. (EH BILDU).
Itziar Joaristi Olariaga A. (EH BILDU).
Ane Miren Peña Larrañaga A. (EH BILDU).
Jose Joakin Etxaniz Peña J. (IRABAZI-AZKOITIA BAI).
Janire Igoa Merino A. (PSE-EE).

Idazkaria: Amaia Gorrotxategi Zubizarreta, Udal Idazkaria.

Alkate jaunak bilkurari hasiera eman dio, honako gai-zerrendaren arabera:

BAKARRA.- UROLA ERDIKO MANKOMUNITATEAREN ETA AZPEITIKO UDALAREN ARTEKO HITZARMENA, AZPEITIKO UDALARI UDALERRIAN KOMUNITATE-ONGIZATEA ETA INGURUMENAREN BABESA SUSTATZEKO INBERTSIOAK, PROGRAMA ETA ZERBITZUAK BURUTZEKO KONPENTSAZIOA EMATEKOA. - KASAZIO ERREKURTSOA TARTEJARTZEA.

Honako irizpena aurkeztu da:



“ANTOLAKUNTZA BATZORDE INFORMATIBOAREN IRIZPENA

Ebazteko organoa: Azkoitiko udaleko Udalbatza Plenoa

Gaia: *Urola Erdiko Mankomunitatearen eta Azpeitiko Udalaren arteko hitzarmena, Azpeitiko Udalari udalerrian komunitate-ongizatea eta ingurumenaren babesa sustatzeko inbertsioak, programa eta zerbitzuak burutzeko konpentsazioa ematekoa-ren auka tartejarritako administrazioarekiko auzi errekurtsoren prozedura judizialean Euskadiko Auzitegi Nagusiak onartutako 187/2021 sententziaren aurka Kasazio Errekurtsoa tartejartzea.*

AURREKARIAK

2016eko urtarrilaren 27ko bilkuran Azkoitiko Udalak honako erabakia hartu zuen, besteren artean:

LEHENA.- *Ondoan aipatzen diren espedienteak ebatzi zituzten akordioak, Urola Erdiko Mankomunitatearen Batzar Nagusiak 2015eko abenduaren 30ean egindako bilkuran onartutakoak, inpugnatzea, eta beraien aurka birjarpen helegitea aurkeztea, irizpen honi eransten zaion 1. dokumentuan jasotakoaren arabera:*

Urola Erdiko Mankomunitatearen eta Azpeitiko Udalaren arteko hitzarmena, Azpeitiko Udalari udalerrian komunitate-ongizatea eta ingurumenaren babesa sustatzeko inbertsioak, programa eta zerbitzuak burutzeko konpentsazioa emateko. Urola Erdiko Mankomunitatearen 2015-2016 Inbertsio eta Zerbitzuen Plangintza.

BIGARRENA.- *Urola Erdiko Mankomunitatearen Batzar Nagusiak tartekatuko diren birjarpen-errekurtsok atzera botako balitu, eta 2015eko abenduaren 30ean hartutako ebazpenak berretsiko balitu, haien aurka administrazioarekiko auzi-helegitea tartekatzea.*

HIRUGARRENA.- *Urola Erdiko Lapatx Zabortegia S.A.ren sarrera eta gastuen aurreikuspena aldatzen duen espedienteaz Azkoitiko udalak aurkezturiko alegazioak gaitzetsi, eta espediente behin betikoz onartzearen aldeko ebazpenen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa tartekatzea, dagokion jurisdikzioaren aurrean. Halaber, gai hauei buruz Sozietatearen Administrazio-Kontseiluak hartutako ebazpeak inppugnatzea.*

LAUGARRENA.- *Azkoitiko Alkate-Udalburuari ahalmena ematea, erabaki hauek gauza ditzala, eta, auzi-helegiteen kasuan, Abokatu eta Prokuradoreak izenda ditzala.*

BOSTGARRENA.- *Erabaki hauek interesatuei jakinaraztea.”*



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Orobat, 2016ko martxoaren 30ean egindako bilkuran honakoa erabaki zela, besteren artean:

LEHENA.- Ondoan aipatzen diren espedienteak ebatzi zituzten akordioak, Urola Erdiko Mankomunitatearen Batzar Nagusiak 2016ko martxoaren hiruan egindako bilkuran onartutakoak, inpugnatzea, eta beraien aurka administrazioarekiko auzi-helegitea aurkeztea:

1º) "5. 2015-2016 Diru laguntzen Estrategia Plana onartzen duen Lehendakariaren Ebazpenaren berri ematea"

2º) "6. Lehendakariaren proposamena onartzea:

Urola Erdiko Mankomunitateko Batzar Nagusiak, 2015eko abenduaren 30ean hartutako erabakia, Urola Erdiko Lapatx Zaborteia S.Aren sarrera eta gastuen aurreikuspen egoeraren aldaketaren espedienteen alegazioak ezezte eta espedienteak betikoz onestekoa, berrestea.

Javier Zubizarreta Zubizarreta J.k, Ana Azkoitia Urteaga A.k., Miguel Angel Bastida Aranbarri J.k eta. Angel Luis Martin Rodriguez J.k aurkeztutako berraztertze errekurtsoa, Urola Erdiko Mankomunitatearen eta Azpeitiko Udalaren arteko hitzarmena onartzen duen 2015eko abenduaren 30ean hartutako erabakiaren kontra, partzialki onestea eta jarduketak atzera ematea diru laguntzen plan estrategikoa eta fiskalizazio txostenak espedienteen sartzeko.

Azkoitiko Udalak aurkeztutako berraztertze errekurtsoa ez onartzea"

3º) "7. Urola Erdiko Mankomunitatearen eta Azpeitiko Udalaren arteko hitzarmena onestea, Azpeitiko Udalarri udalerrian komunitate-ongizatea eta ingurumenaren babesa sustatzeko inbertsioak, programa eta zerbitzuak burutzeko konpentsazioa ematekoa."

BIGARRENA.- Azkoitiko Alkate-Udalburuari ahalmena ematea, erabaki hauek gauza ditzala, eta Abokatu eta Prokuradoreak izenda ditzala. Halaber, ahalmena ematea, ebazpen hauetatik erator zitekeen ebazpenak inpugna ditzala.

HIRUGARRENA.- Erabaki hauek interesatuei jakinaraztea."

Horietaz gain, hainbat akordio aurkaratu zirela Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, aurrez zehaztutako horiekin lotuta zeudelako, horietan aipagarriena, Osoko Bilkurak 2016ko uztailaren 21eko bilkuran erabaki zuena, honakoa:

LEHENA.- Urola Erdiko Mankomunitatearen Batzar Nagusiak 2016ko uztailaren 21ean egindako bilkuran onartutako ondorengo ebazpena inpugnatzea, eta beraien aurka administrazioarekiko auzi-helegitea aurkeztea :



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

- *Urola Erdiko Mankomunitatearen eta Azpeitiko Udalaren arteko lankidetzaz hitzarmenaren eranskina, Azpeitiko udalari konpentsazio ekonomikoa emateko, Azpeitiko udalerrian komunitate-ongizatea eta ingurumeneko programak egiteko.*

BIGARRENA.- *Azkoitiko Alkate-Udalburuari ahalmena ematea, erabaki hauek gauza ditzala, eta Abokatu eta Prokuradoreak izenda ditzala.*

BOSTGARRENA.- *Erabaki hauek interesatuei jakinaraztea*

KONTUAN HARTURIK

I.- Lehenengo eta bigarren puntuan aipatutako administrazioarekiko auzi errekurtsioak tartearri zirela eta horien inguruko prozedura judiziala izapidetu dela.

Lehenengo instantzian, Donostiako Administrazioarekiko Auzien 3 zenbakiko Epaitegiak 99/2020 sententzian honakoa erabaki zuela:

Estimo íntegramente el recurso contencioso-administrativo interpuesto por D. Javier Zubizarreta Zubizarreta ; Dña. Ana Azkoitia Urteaga; D. Miguel Angel Bastida Aranbarri; y D. Angel Luis Martín Rodríguez contra el acto administrativo impugnado, consistente en el Acuerdo nº 7 adoptado por la Asamblea de la Mancomunidad del Urola Medio relativo a la aprobación definitiva del Convenio para la concesión al Ayuntamiento de Azpeitia de compensación económica para el desarrollo de planes, proyectos y programas de bienestar comunitario y de carácter medio ambiental en el municipio de Azpeitia y de la Junta General de la Sociedad Urola Erdiko Lapatx Zabortegia S.A., adoptado en sesión extraordinaria de fecha 29 de diciembre de 2015; condenando al Ayuntamiento de Azpeitia a reintegrar a la sociedad "Urola Erdiko Lapatx Zabortegia S.A.", la cantidad de 3.850.000 euros percibida como consecuencia de la aplicación del citado convenio declarado nulo; con expresa imposición de costas a las partes demandadas, si bien limitadas por todos los conceptos hasta una cifra máxima de 100 euros.

Sententzia berdinean ezetsi zituen demandatzaile berberak tartearritako honako administrazioarekiko auzi errekurtsioak: Urola Erdiko Mankomunitateko 2015-2016 Inbertsio eta Zerbitzuen Plan Estrategikoaren onarpenaren inguruko eta hitzarmena behin betiko onarpenaren aurka tartearritako birjarpen errekurtsioa ez onartzearen inguruko.

Sententziaren oinarriak, bestek beste, honakoak dira:



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

- Mankomunitateak ez duela eskumenik, beren estatutuen arabera, hitzarmenean zehaztutako hainbat aspekturen inguruan, hortaz, ezin duela gai horien inguruko hitzarmenik onartu. Hori horrela hitzarmena deuseza dela dio.

- Hitzarmena ez dagokio diru-laguntza bati, hitzarmenaren testutik ez delako hori ondorioztatzen, baizik eta 30/1992 Legearen 88. Artikuluan ezarritako amaiera konbentzionalari.

- Hitzarmenean, Azpeitiko Udalak hasitako izaera konpensatorioa duen espedienteari amaiera konbentzionala ematen zaiola ondorioztatzen da. Epaitegiaren iritziz, izaera konpensatorio horren oinarrian kalte bat egon behar da eta horrek ez du zerikusirik diru-laguntza batekin. Dena den, diru-laguntza izango balitz ere, deuseza izango litzateke, kompetentzia faltagatik.

- Eztabaidagai den kontraprestazioak izaera konpensatorioa baldin badu, erantzunkizun patrimonialeko espediente batean izan beharko luke oinarria.

- Ez ditu onartzen Lapatx Zaborategia S.A.ren argudioak, non esaten den ingurumen primaren ordainketari dagozkiola ordainketak.

II.- Bestalde, Euskadiko Auzitegi Nagusiak 187/2021 sententzian kontrakoa ebatzen du, honakoa ebatziz:

Estimar el recurso de apelación formulado por la procuradora de los tribunales Doña Maria Luisa Linares Farias en representación de Urola Erdiko Zerbitzu Mankomunitatea, Mancomunidad de Urola Erdia frente a la sentencia del juzgado de lo contencioso administrativo nº 3 de Donostia San Sebastián, de 8 de julio de 2020 que entre otros pronunciamientos ahora no cuestionados, estimaba el recurso acumulado en la parte correspondiente al RCA nº 128/2016 seguido contra los acuerdos de 30 de diciembre de 2015 y de 3 de marzo de 2016 que aprobaron y confirmaron el convenio entre dicha mancomunidad y el Ayuntamiento de Azpeitia que había sido recurrido por el Ayuntamiento de Azkoitia y otras personas físicas, y en consecuencia;

Primero.- Revocar dicha sentencia en la parte apelada.

Segundo.- Desestimar el recurso contencioso-administrativo promovido en primera instancia nº 128/2016, por el mencionado Ayuntamiento de Azkoitia y otros, frente a los indicados acuerdos de aprobación y confirmación del convenio, y confirmar dichos acuerdos relativos al convenio.

Honen oinarria dira, besteak beste, honako argudioak:

- Hitzarmen hau administrazioen arteko kooperazio eta kolaborazioko tresna bat dela, eta helburu partekatua betetzeko modua.

- Sinatzaileak diren administrazioei dagokiela apreziatzea hitzarmenaren beharra eta egokitasuna.

- Hitzarmenaren adendaren irmotasuna aipatzen du, zehaztuz, hitzarmena eta adendaren artean lotura estua dagoela, eta adendaren irmotasunak hitzarmenaren gauza epaitua ez badakar ere, sententzia haren irmotasunak dakarrela hainbat deklarazio eta posizio juridikzionalak izaera prejudiziala hartzea eta hortaz, Sala hau horietatik desbinkulatu ezina.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Aipatutako sententziaren aurka Kasazio Errekurtsoa tartejarri daiteke Auzitegi Gorenaren aurrean. Errekurtso mota honen lehen fasea errekurtsoaren prestaketa da.

III.- Kontuan izanda, baita ere, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, 68. artikulua 1. idatz-zatian ezarritakoarekin bat, *toki-erakundeek beren ondasunen eta eskubideen alde egiteko beharrezko akzioak baliatzeko betebeharra dute*. Azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 220. artikuluan ere, betebeharrak berbera aipatzen du.

781/1986 Legegintzako Errege-Dekretuak, apirilaren 18koa, Toki Araubidearen arloan indarrean dauden Xedapenak arautzen dituena 1. Artikuluan jasotzen du Udalen eskumen hau (Udalei ahalmen osoa ematen die, besteak beste, *“legetan aurreikusitako akzioez baliatzeko”*).

Kasu honetan, Azkoitiko Udalak, Urola Erdiko Mankomunitateko parte izanik, Azpeitiko Udalari, bere iritziz, legez kanpo egindako ordainketa baten ondorioz Mankomunitateak eta ondorioz berau osatzen duten udalerrri guztiek jasandako kalte bat konpontzea bilatzen du.

IV.- Ikusita, Udal honetako abokatuak eta Idazkariak egindako txostenak.

IRIZPENA

LEHENA.- Euskadiko Auzitegi Nagusiaren 187/2021 sententziaren aurka (134/2021 apelazio errekurtsotik datorrena) Kasazio Errekurtsoa tartejartzea, Auzitegi Gorenaren aurrean, aurrez dagokion prestaketa fasea burututa.

BIGARRENA.- Honako abokatu eta prokuradoreak izendatzea aipatutako prozedura judizialean Udal hau ordezkatu eta zuzendu ditzaten:

Abokatuak: Aitor Gabilondo Ruiz

Prokuradorea: Juan Ramon Alvarez Uria.

HIRUGARRENA.- Erabaki hauek interesatuei jakinaraztea.”

Antolakuntza Batzordeak, 2021eko ekainaren 17an egindako bileran, gaia aztertu eta irizpena eman zuen, eta hau izan zen emaitza:

BOZKETA:



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Aldeko bozkak: Javier Zubizarreta, Ana Azkoitia, Sonia Vazquez, Laida Beristain, Ainara Goenaga, Janire Igoa eta Jose Joakin Etxaniz.

Azkoitian, 2021eko ekainaren 17an
Antolakuntza Batzordeko Idazkariak”

Alkate Jk. dio Antolakuntza Batzordean komentatu zela gaia, abokatuak ere azalpenak eman zituela.

Baita ere adierazi du, Azkoitiko interesak defendatzen ari direla, eta ez direla beste zerbait ez egin izanaren penarekin geratu behar.

Jose Joakin Etxaniz jaunak esan du Idazkariak eta abokatuak esan izan dutela epaitegira joateko nahiko argudio juridiko daudela. Uste dute Azpeitiko Udalak ezin dituela diru kopuru hauek jaso. Errekurtsoa tartejartzearen alde daudela dio amaitzeko.

Janire Igoa andreak, nahiz eta ekonomikoki kantitate bat suposatu dezakeen, jasoko litzatekeen kantitatea handiago dela ikusita, aurrera jarraitzearen alde bozkatuko dutela esan du.

Bozketaren emaitza honakoa da:

Aldeko botoak: Javier Zubizarreta Zubizarreta, Ana Azkoitia Urteaga, Marijose Arregi Etxeberria, Imanol Arrizabalaga Larrañaga, Sonia Vazquez Tejerina, Angel Luis Martin Rodriguez, Mertxe Zubillaga Albizu, Juan Bautistia Mendizabal Juaristi, Ainara Goenaga Andueza, Mikel Zengotita Alberdi, Ane Miren Peña Larrañaga, Iraitz Otaño Mujika, Laida Beristain Zubizarreta, Itziar Joaristi Olariaga, Angel M^a Etxeberria Ibarguren, Janire Igoa Merino eta Jose Joakin Etxaniz Peña.

Beraz, Udalbatza Osoak Urola Erdiko Mankomunitatearen eta Azpeitiko Udalaren arteko hitzarmena, Azpeitiko Udalari udalerrian komunitate-ongizatea eta ingurumenaren babesa sustatzeko inbertsioak, programa eta zerbitzuak burutzeko konpentsazioa ematekoa. - Kasazio errekurtsua tartejartzea onartzea aho batez erabaki du.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Aztertzeko gai gehiago ez dagoenez, Alkate jaunak bilkurari amaiera eman dio, arratsaldeko zazpiak eta bost minutu direnean eta nik, Idazkariak, akta hau jaso dut, Agirien Liburura transkribatuko delarik.

ALKATEA

IDAZKARIAK

**Akta honen osagarria izango da, berarekin batera elektronikoki sinatzen den audioa.*



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2021PLEN0012-Akta/Acta ()